
ERLEAK, NOLA EGITEN DU ERLAUNTZA?

Helena Ostolaza

Aurreko alean erle bakartiez luze eta zabal hitz egin genuen. Hala ere, badira naturan beste erle-mota batzuk. Saia gaitezen bada erle sozial direlakoan bizimoduaz zertxobait ezagutzen.

Erlauntz erleak tropiko aldean agertu ziren. Eta egun, oraindik han bizi dira irauten duten lau espezieetatik bik: *Apis florea* eta *Apis dorsata* espezieak hain zuzen. Beste biak, *Apis cerana* eta *Apis mellifera*, iparralderantz eta ekuatorearen hegoalderantz hedatuz joan ziren poliki-poliki. Beraz, neguak dakartzan atsekabeak gaintu beharrean aurkitu ziren: elikatzeke polenik eta nektarerik gabe zeuden eta tenperatura hotza zuten urtaro horretan. Erle hauek irauteko garatu duten metodoa, kolonia instalatzeko habitakulu-motaren aukeraketan datza. Ondo aukeratua bada, kolonia urtetan biziko da. Bestela, lehenengo neguan hotza datorrenean akabatu egingo dira. Bizi-lekuaren egokitasuna, erle zaharrenen trebetasunean oinarritzen da; esploratzaile hauek



Erlakumea zuhaitzaren abarretik zintzilik. Erlakumea, finkatutako koloniako erregina eta 15 milaren bat erle langilez osaturik dago.

bait dira aukeraketa egiten dutenak.

Kolonia berriak

Erleek, kolonia berria osatzean segitzen duten metodoari *erlakumaketa* deritzo. Erleek udaberriaren azken aldera osatzen dute erlakumea. Ugalketa oparoko aldiaren ondorioz, erlauntzaren populazioa asko hazten da, eta honek, babeslekua asetzea dakar berekin. Ondorioz, erlakumea eratzen da. Badirudi, superpopulazio honek erregina alaben errutea dakarrela. Erreginarik indartsuenak, jadanik eraikita dagoen erlauntza heredatzen du. Hori erabakitzeke, lehendabizi erregina gazteen artean ezten-borroka izaten dute. Erregina berrien errutea aurreratua dagoenean, eta lehen erregina alaba ia jaiotzen aurretik, erregina ama gutxi gorabehera 30.000 erle langilez osaturiko kolonierdiarekin joan da, babesleku berri batean kolonia berria finkatzeke asmoz.

Erregina zaharra, atzetik segizioa daramala, hegaldia zoroan urruntzen da erlauntzatik. Dozena bat metro ibili ondoren, erlakumea zuhaitz edo zuhamuxka baten adar

gainean kokatzen da, bizar-formako piloa osaturik. Luze baino lehen, esploratzaileak norabide guztietan irteten dira babesleku berriaren bila. Esplorazio-hegalaldi hau ez da 10 km baino urrutirago iristen. Erle esploratzaileak erlakumeko zaharrenak izaten dira (lehen, erlauntzarako janaria biltzen zutenak) eta beraz, inguruko paisaia ezagutzen dutenak. Erlakumearen %5 besterik ez dira izaten horrelakoak.

Erlauntzaren kokapen berria izango dena aukeratu ondoren, erlakumearen alde batetik bestera sigi-saga itxuraz hegan hasten dira, hegoekin era askotako soinuak ateratzen dituztela. Honela, beste erleei piloa apur dezaketela adierazten diete. Bernd Heinrich-ek (Vermont Unibertsitatekoa bera), erlakumeko populazio osoa hegan hasi aurretik, multzoaren tenperatura 36°C-ra igoz geroz, erlakumek frogatu du (hego-muskuluen funtzio-



Enbor huts batean eginiko erlauntza.

namendu op-timorako tenperatura egokiena da hori hain zuzen ere). Ondoren, esploratzaileak erlakumearen inguruan kokatzen dira, eta multzoan zehar bidea zabaltzen saiatzen dira, hegoak bibratuz. Pilotik zurrumurru zaratatsua

I.X.I.



Markatutako alea erregina da.

sortzen da; soinu honek klimaxa lortuko du erlakumearen gainazal sendoa galdatu, eta erleez osoturiko kateak desegitean. Berehala, erlakume osoa hegaka hasiko da, airea zurrumurru sarkorraz bete eta milaka erle hegaldi urdurian hedatzen direla.

Hamar metroko erle-hodeia

Erlakumeak orduan 10 m-ko diametroa duen lainoa eratzen du. Erlakideak gordeleku berriantz gidatzeko, erle esploratzaileak erlakumean barrena sartzen dira, noizbehinka aukeraturiko lekuraneko norabidea markatzen duten lerroak eginez. Hasieran erlakumea poliki joaten da, lehengo 30 metrotan poliki ibiliz, baina 200 m inguru egin ondoren, azeleratuz joaten dira, lurretik metro gutxi batzuetara 10 km/h edo gehiagoko abiadura lorturik.

Erlakumea erlauntza izango den punturantz hurbilduz doan

Erleek, kolonia berria osatzen segitzen duten metodoari erlakumaketa deritzo.

neurrian, erle esploratzaileek geldi daitezen adierazten diete. Erleak orduan osatutako lainotik eroriz joango dira eta habitakuluaren sarreran kokatuz (enborzuloa, sustrai arteko barrunbea edo eta adarren bat). Abdomenaren azpi aldean kokaturiko Nassanoff guruinetik kongregazio-ferormona askatuko dute bertan. Ferormona hau erlauntzaren sarrera markatzen duen seinale kimikoa dugu, erleek usain modura detektatzen dutelarik. Seinale horren ondorioz, erle guztiak bilduko dira barrunbearen inguruan. Orduerdia geroago, erlakumearen osagai guztiak salbudaude etxebizitza berrian. Garbiki-

tan ordu asko igaro aurretik, abaraskak eraikitzen edota polena eta nektarea batzen hasiko dira. Kolonia berria finkatuta gelditu da.

Kolonia berriak arrisku ugari

Erlauntzaren fundazioak, arrisku asko du. Lehenbiziko negu beltza igarotzeko, koloniak hainbat traba gainditu behar du: toki aproposa bilatu, argizarizko abarasketz betetako erlauntza eraiki (honek energi gastu handia du berekin) gazteak negua pasa dezaten zaindu, eta aro gogor horretarako behar izango dituzten hornidurak metatu. Kolonia gehienek ez dute hori lortuko. Esaterako Ithaca (EEBB) inguruetako basoetan bizi diren koloniak luze azertu ondoren, eraiki berriak diren kolonietan lehenengo negu hotza gainditzen dutenak %24 direla esan daiteke. Jadanik finkatuak zeudenetan berriz, %78 zen iraupen-tasa. Halaber, kolonia batek lehenbiziko negua (kritikoena, noski) gain-

ditzen badu, beste bost inguru ere igaro ditzakeela frogatu da. Beraz, kolonia bat luzaro bizi daiteke, baina arrisku handiekin topo egiten du toki berria aukeratzean, eta hau dela eta, erlakumeak toki berria aurkitzeko ezin dezake hutsik egin. Kolonia bakoitzak erabaki bakar eta serioa hartu behar du, zenbait urtetan bizi ahal izateko. ■



Erlea lorez
lore ibiltzen da.